

43/2021 FORU AGINDUA, apirilaren 29koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, foru dekretu baten proiektua egiteko prozedurari hasiera ematea erabakitzen duena. Foru dekretu horren bidez arautuko da hezkuntza sistemako irakasleak izendatzeko prozedura, Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen sarean enplegurako lanbide prestakuntza egiaztagarria emateko, bai eta prestakuntza hori emateagatik jasoko dituzten konpentsazio ekonomikoak eta beste alderdi batzuk ere.

Lanbide Heziketaren Zuzendaritza Nagusiak txostena aurkeztu du, zeinetan argi gelditu baita arau berri bat egin behar dela Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen sarean enplegurako lanbide prestakuntza egiaztagarria emateko, bai eta prestakuntza hori emateagatik jasoko dituzten konpentsazio ekonomikoak ere.

Arau honek garatu behar du unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legean ezarritakoa. Hori dela eta, foru dekretua izan behar du.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41. artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. Foru dekretua prestatzeko prozedura hastea, hezkuntza sistemako irakasleak izendatzeko prozedura arautzen duena, Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen sarean enplegurako lanbide prestakuntza egiaztagarria emateko, bai eta prestakuntza hori emateagatik jasoko dituzten konpentsazio ekonomikoak ere.

2. Izendatzea Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketaren Zuzendaritza Nagusiko Lanbide Kualifikazio, Enpresa eta Enplegurako Zerbitzua aipatutako foru dekretuaren proiektua prestatu eta tramitatzeko organo.

3. Igortzea foru agindu hau Hezkuntza Departamentuaren Idazkaritza Teknikora, Lanbide Heziketaren Zuzendaritza Nagusira eta Lanbide Kualifikazio, Enpresa eta Enplegurako Zerbitzura.

Iruñean, 2021eko apirilaren 29an.

HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA

Carlos Gimeno Gurpegui